

Ireki da matrikulazio epea Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu titulurako

2008/11/18

2008ko azaroaren 17tik abenduaren 15era, zabalik egongo da matrikula egiteko epea Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu tituluan. Hori egin nahi duenak **bi aukera** izango ditu: Eskoriatzara etorri, eta bertan egin matrikula, goizez 09:45-12:00etara, eta arratsaldez 15:30-17:30 bitartean. Bigarren aukera da betetzea matrikula orria, eta hona bidaltzea, posta ziurtatua erabilita. **Matrikula 1.900 euro** kostatuko da.

Aditu tituluaren lehen edizioa 2007-08 ikasturtean egin zen, orduan 60 ikaslerekin. Tituluaren bigarren aldia, ostera, urte berriarekin batera hasiko da, 2009ko urtarrilaren 7tik uztailearen 1era luzatuko da-eta. Aurrekoan bezala, bigarren aldi horretan asteazkenak izango dira eskola egunak, arratsaldeko 15:00etatik 20:00etara, 15 minutuko atsedenarekin.

Helburuak

Aldi honetan helburuak lehengo berberak dira:

- Corpus batean biltzea euskal kulturgintzari buruzko ezagutza barreiatua.
- Formazio multifokal eta praktikoa egitea.
- Kulturgintzaren transmisioan izandako estrategia eta esperientzia partzialak beste alorretakoen eskura jartzea.
- Aurreko guztia bi multzotan jarriz egitea: batetik, aritu eta adituen multzoa; eta, bestetik, gai honetan jantzi nahi duten eragileen multzoa.

Edukiak

Formazioaren edukia lau bloketan banatuko da:

- Formazio teorikoa.
- Testigantza bidezko formazioa.
- Tutore mintegiak.
- Hausnarketa eta ekoizpena.

Emailak

Emailen artean, jende ezaguna etorriko da ikastarora: **Joxan Artze, Bernardo Atxaga, Txomin Peillen, Itxaro Borda, Joseba Zulaika, Xabier Lete, Fermin Muguruza, Amaia Zubiria, Josu Landa, Luistxo Fernandez, Koldo Zuazo, Mikel Irizar, Lourdes Aranguren,**

etab., etab.

Argibide eta xehetasun gehiago aurkituko duzue ikastaroaren orrian bertan.

